



**IRAKASLEEN
ASANBLADA
NAZIONALA**

**I. EZTABAIDATZEKO
PROPOSAMENAK**

- 1.- *stee-eilas*
- 2.- *Kas*



**II. ESKOLA EUSKALDUN PUBLIKOAK-
DOKUMENTAZIO ZENTROA**

TXT 10121

I. EZTABAIDATZEKO GAIAK

A) STEE-EILAS

ZERGATIK ETA ZERTARAKO IRAKASLEEN BILTZARRE NAZIONALA

Orain bost urte, STEE-EILAS sortu zenean, KAS-Irakasleak taldeko batzuk bilera egin genuen. Irakaskuntza sektoreko burruka maila eta proiektu sindikal honetan eduki genezakeen eragina zenbaterainokoa zitekeen aztertu ondoren, has-tapenetan zebilen kolektibo sindikal horretan saiatzea erabaki genuen.

Urte hauetan zehar, eduki izan dugu zenbait zalantza erakunde unitario honetan ihardukitzearen egokitasunaz nahiz efikaziaz. Baina sasoiari - sasoiari azterketa eta balorapenak behin eta berriz ginderramatzaten gure presentziarentzat, sindikatu horretan alde positiboak negatiboak baino gehiago aurkitzera.

Egunotan, honenbesteko irakasle taldean berriro ere sindikatoaren jokabidea eta gure presentzia aztertzeari ekin ondoren, jarraiko ondorioetara heldu gara:

1.- STEE-EILAS erakunde sindikalean, baliozko izaten jarraitzen du gure presen-

tzia eta inzidentziak.

2.- KAS korrante eratu bezala ez dugu funtzionatu izan gutienezko estabilitatez eta seriotasunez. Eta efiktibitatezko edozein lanetarako ezin bestekoa da, ordea, koordinatu eta egituraturik egotea.


3.- Geure linea eta jokabide sindikala sentzu batean nahiz bestean berdefinitzeko, Euskadi mailako batzarre orokorrean biltzeko eta gai hau sakonki eztabaidatzeko premia daukagu.

Helburu horretarako, Tolosako Sakramentinoetan, Otsailaren 6an goizeko 10etan egingo den Biltzarre Nazionalera deitzen zaituztegu irakasleok. Gaiordena prestatzeko zenbait materiale erasten zai-zue. Gaiorden hau jarraiko puntuetara zuzendua dago:

1.- Euskadin, egungo Irakaskuntzan konpongabe dauden arazoak.

2.- Ikastoletan elebitasuna barneratzeko proiektu arriskugarria.

3.- Erakuntza formak.



STEE-EILASen BETE DEZAKE- GUN LANAREN GARRANTZIA

Euskadiko irakasleen mugimendu demokratikoen bultzadaz, Euskadiren barrutian egoera politiko berriari erantzun egokia eman nahirik sortutako sindikatua dugu STEE-EILAS, eta zenbait ekinkidoren planteamolde radikal eta politiko direla medio U.C.S.T.E.n konfederatua. Hauetako partidu bat, E.M.K. hain zuzen Martxoko gure Kongresurako da U.C.S.T. E.tik deskonfederatzea planteatuko duen bat, egoera honetan, sindikatua arriskutan dagoela jakinik.

Balorazio taktiko honetatik at, STEE-EILASek gure planteamolde politiko-sindikalak aurrera ateratzeko lanbideak eskaintzen dizkigu, beste indar batzuekiko elkarekintzetan etengabeko lana eramateko gai izanez gero.

Gure posizio politikoaren aurrerakuntza sindikato barruan nabarmentzen dela ukalezinezkoa dugu, eta ez dago dudarik indar klasea garela bertan.

Bestalde, STEE-EILAS, gure Euskal Herriko Biltzarre Nazionalaren planteamoldeekin bat datorkigu, erakunde unitarioa, asanblearioa, klaseko eta nazionala delarik.


KASeko izanik, irakaskuntzan dihardugun langileontzat, lan koherentea egin dezakegun erakunde da STEE-EILAS, gure alternatiba eguneroko aktibitate sindikalean garatzeko gai bagara.

B) KAS

LAB-en ERATZEA, BAINA IRAKASKUNTZAKO FEDERAKUNDE PROPIOA SORTU GABE.

KAS irakasleen korrante eratua sortze eta sendotzeko ahaleginak, erakunde egonkor eta egituratuan gauzatu izan ez badira ere, azken hiru urteotan erabateko deskoordinazio eta desartikulazioan amildu gara.

Deskoordinazio egoera honen kausaz KASeko gure irakaskide asko, gogogabezia eta desorientazio politikoan bizi dira. Horregatik, ezin saiheztuzko eginkizuna dela uste dugu guretzat, beste KASeko erkideekiko solidaritateagatik eta bai koherentzia politikoagatik ere, erakunde egonkor eta efikazaren arazoari irteera aurkitzen saia gaitezen. Nahitaezko baldintza, bestalde, gure irakaskintza arloko inzidentziarako.



NOLA ERA GAITEZKE ?

Plantea daitezken alternatibak ezberdinak litezke: orain arte bezala jarraitzetik —hau da, inolako lotura organizatiborik gabe— LABen oso-osoan integratzerainokoak. Guk geure aldetik —bistan denez irteera bakartzat emateko asmorik gabe— hurrengo proposamena aurreratzen dugu:

1.- Alde batetik, zenbait urtetako esperientzian oinarrituz behin eta berriz egindako saioak eta gure indar mugatuak kontutan hartuz, KASen korrante autonomo bezala eratzea utzi egiten dugu.

2.- Bestalde arestian STE-EILASI buruz eman arazoiekatik, aipaturiko sindikatuan gure presentzia nahiz inzidentziak interesgarri izaten jarraitzen dutela uste dugu.

3.- Guztiorrengatik, LABen organitzeko alternatibarantz zuzentzen dugu gure proposamena, baina beti ere irakaskuntzako federakunde propioa portzeke.

Zein da erabaki honen esangura? Ez daukagu gogotan proposamen honi buruzko balorapen politiko osorik egitea, —analisi hori deituriko Biltzarre Nazionalen

gauzatu beharko baita— zenbait ondorio, telegrafikoki bada ere, aportatzea baino:

a.- Guretzat, KAS irakasleentzat:

— Koordinatze posibilitateak gehitzea, LABen batzarlekuak, fitxategiak eta egungo azpiegitura osoa eskutan eduki ahal izatean.

— LAB sindikato soziopolitikoan lan egin eta kolaboratzeko ahalbideak.


— Kuota ordainketa, gainerako ekinkideak bezala.

b.- LAB Sindikatoarentzat:

— Irakaskuntzako problematika laborala, soziolinguistikoa nahiz politikoa hurbiletik jarraitzea.

— Ekinkideria eta kolaboratze ahalbideak ugaltzea.

— Irakaskuntzarako federakunde propioa ez sortzeko konpromezua.



ETENDURAKO ALTERNATIBA:

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Euskal burgesiak, Gaztelakoak nahiz mundu guztikoak bezala, botere ekonomiko eta politikoa beragan duen heinean, ezin du onartu irakaskuntzaren kontrola besteren eskutan egon dadin. Eraberean, bistakoa da guk nahi dugun pedagogia aktibo eta askatzailea, gestio demokratiko eta parte-hartzailea eta euskara hutsezko irakaskuntza karakteristikatzat dauzkan Euskal Eskola Publikoa ezin duela inondik ere Espainiako "seudo demokraziak" "irentsi". Ezinezkoa baita, ofizialki bederen, etendurako demokrazia aurreratuan izan ezik.

E.A.J. eta Euskadin Erreforma Politikoa ezartzen laguntzen dioten indar politikoek, Ikastolak Euskal Eskola Publikoa eta Herritarreranzko bide eta eredu direla ikusirik, dauzkaten alde aurrerakoiak ebaikitzea arabaki dute. Era horretan Ikastola eta eskola estatalen arteko bateratasunaren fruitua, Euskadiko Eskola Nazional eta herritarra eraikitzeko asmo eta ilusioak itzali eta murriztuz. Prozesu guzti honetan E.A.J. bere eskola pribatu eredia ikastoletan ezartzen ahalegintzen da:

— Eskola Publikoranzko aurrerapenik ez daukan arautegi-konbenioa inposatzen digu. Publikoa deitu arren, eskola pribatuaren oinarritzko kontraesanak diraute: dohaintasun eza eta langile-ugazabaren arteko harremanak irakaskuntzan diharduten artean.

— Gestio demokratikoari dagokionean, arautegi argi bat ikusteko gaude. Eta PSOEK "Ley de Centros" deituari egin dizkion "ikuttuekin" garbi baino garbiago

daukagu Gobernu Autonomoak ez duela inolako gaitasun legislatiborik arazo honetan; eta ondorioz, azkenean "Ley de Centros" hori zuzen-zuzenean betetzea eskatuko digute.

— Euskal Eskolari dagokionez atzerapena nabaritzen da. Ez da Euskal Eskolaren figura ikusten. Euskal Eskola hori, bestalde, errepresio eta zapaltze mota guztiez eragotzi arren herri mugimenduen eraginez Estatu Frankistari inposatutako eredia da.

Arautegi-Konbenio hau, teoriak behin-behinekoa dena, behin betirako pausua ematera datorkigu: ikastolen seudo-publiko eredia.

Eta orain, denbora gutxi barru, Eusko Legebiltzarreak ikastolen estatutua eztabaidatuko du. Baina jakin ba dakigu, ez duela aurrera pausurik suposatuko. Honen onarpenak, ikastolen prozesu erreformistaren azkena inplikatzeko du, Arautegi-Konbenioaz hasi zen prozesua burutzea. Baina, hain zuzen ere, PNV-UCD Euskadiko eskuinak defendatzen duen politikak, herri ikastolen mugimendu osorako dakarren traizioagatik, gure ikastolen etorkizuna guraso, irakasle eta laguntzaileen artean eztabaidatzeko premia Jaikagu. Jomuga honekin, Eusko Parlamentuari exijitzen dizkiogun gutxienezko puntuak zeintzu diren laburki adierazteko eskaintzen dizuegu materiale hau. Burrukatzu dihardugun etorkizuneko Eskola Publiko horrek —eta beraren ardatz diren eskola estatalak eta egungo ikastolak gogotan edukirik— bete behar dituen baldintzak ematen ditugu, orokorki bada ere.

ESKOLA EUSKALDUN PUBLIKOAREN EZAUGARRIAK

1.- DOHAKOA

Funtsezko eta negoziatzeko ezaugarri bezala defendatzen dugu irakaskuntza, maila eta gradu guztietan, erabat dohakoa izatea. Honek zera suposatzen du:

B.- Eskolaritate gastuak kosteatzea. Eskolaritate kostuaren ehuneko ehun erakunde publikoen kontu joan behar du. Halaber, irakaskuntza, bi urtetatik hasita, osoki kosteatua izan dadila. Euskarazko irakaskuntzak, bi urtetatik abiatutako eskolarizazioa exijitzen digu, dudarik gabe, eta eskualde erdaldunetan bereziki.

Ohar gaitzen Normatiba-Konbenioaz ez direla eskakizunok betetzen: Ehuneko ehun kosteatzetik oso urruti gaude eta bi urtetatik hasitako eskolarizazioa aipatu ere ez da egiten.

B.- Lokalen titularitatea eskuratzea. Normatiba-Konbenioaren kontraesan garbenetariko bat, hain zuzen, hauxe da, alegia, lokalen jabegoa, eta ondorioz oraingo zor guztiak, lkastoletako haurren gurasoen bizkar jarraitzen dutela. Baldintza haueetan titularitate publikoaz eta dohantasunez hitzegitea gezurra eta engainua besterik ez da. Errealitate gordina zera da, zentru pribatu subentzionatu izaten jarraitzea behartzen gaituztela.

Bestalde, pausu honek duen konplexutasun eta zailtasunaren konsziente gara, zein Eusko Jaurlaritzaren kompetentzia faltagatik zein gure lkastoletako eraikuntzetan inbertitutako diruaren jatorri desberdinagatik, baina ez da horregatik behar eta presa guttiagokoa.

Honela, bada, eta arazo honetaz argitasun pixkat egiteko asmoz, hona gure proposamenaren nondik norakoak:

a.- Nahiz eta gure desira besterik izan, Erakunde Publikoen mugatasunak direla eta, lokalen jabetzaren eskuratzea modu progresibo eta mailakatuz burutzea onartzen dugu.

b.- Halaber, lkastola bakoitzaren berezitasuna kontutan hartuz, ez dugu posible ikusten kasu guztietarako jokabide berdinak proposatzea. lkastola bakoitza eskuratzearen prozesua zentru bakoitza eta administrazioaren arteko konbenioz burutu beharra dago.

c.- Dena dela, erakunde publikoek, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Diputazioak hain zuzen, lokalak eskuratzeko eginkizunaren lehen pausu bezala, erakunde finantzieroei kitatu beharrean ditugun amortizazioa kontu eta korrituen kargu, oraindik bertatik, hartzea proposatzen dugu.

d.- Askenez, dagokion erakunde publikoak exijitu eta negoziatu behar duen amortizazioa desberdina dela esan behar, eraikuntzan inbertitutako dirutzaren jato-



riaren arabera. Horrela, Eraikuntzarako Kreditu Bankutik jasotako dirua erakunde Autonomikoek botere zentralarekin zuzenean negoziatu beharko duten bitartean eta gurasoek jarritakoa lehengo jabeei bueltatu, laguntza herritarretik jasotakoa herri edo kolektibo berari itzuli beharko zaio ekipamendu sozial gisa.

2.- GESTIO DEMOKRATIKOA

a.- Gestio demokratikoaren zergatia:

Mundu guztiarentzat da ezaguna eskola tradizionala nolako egoeratan mugitzen den, sistemaren jarraipena segurtatu, bertara ikastera doazenak uniformizatu, gaizki informatu . . . egiteko erakundea denez

Heziketa planifikapenak besaulkietatik edo Madriletik burutzen diren bitartean, inposaketa hauei eta eskola kokatuta dagoen inguruko beharrei erantzuteko modurik ez dugu izango.

Pentsa daiteke, orain, Eusko Jaurlaritzari esker, heziketa lehen baino enmarkatuago dagoela, Euskal Herrian. Guztiau geure buruak engainatzea izan daiteke, Madrilek Estatuko zentru guztietarako planifikatzen jarraitze bait du. Gobernu autonomoei esker, plangintza hauk oso osoan pasatzen dira, geografia edo historiari dagozkien puntu konkretu batzuen "gehigarritz"; plangintza hauk, bestalde, aldaezineko edukietan mamitzen dira, buruz ikasteko egokituak, noski, hartzaileei asimilaketa masiboa, saldotan, eskaini eta, luzarora, sistema mantentzen dutelarik; eskolako errealitatetik hain urrinduak zen eta ikaslea ezindu egiten baitute aldaketa eragile izateko. Ideologikoki hain markatuak zen ez dute beste alternatibarik uzten eta, azkenez, nola ez, lehen bezain obligaziozkoak.

b.- Gestio demokratikoaren nolakoa

Metodologiari dagokionez, zuzenagoa zentru bakoitzeko demokratizazioa eta gestio gintzatik abiatzea, heziketa sistema alternatiboaren lerro nagusiak, ondoren, markatu ahal izateko.



Heziketa komunitateko partaideak hauexek dira: ikasleak, irakasleak, gurasoak, langile ez irakasleak . . . eta guzti hauek heziketa eginkizuneko bilakaeran duten lankidetzaz, heziketa bera aberastu, hesparru erreala urreratu eta eman nahi den heziketa planifikatu eta kontrolatu egin beharko lukete.

Elementu guzti hauekin osotutako zentruaren asanbladatik sortuko litzateke Eskola Kontseilua asanbladaren organu ejekutiboa izateko pentsatua eta aipatu taldeetako kide berdinez osotua. Kontseiluaren zereginetako batzu hauexek lirateke:

- Zentruko hezibide konkretua zehaztu.
- Zentru eta ingurumariaren arteko harremanak mantendu.
- Irakasleagoak proposatutako zuzendaritza berretsi
- Erreziklariaren beharrak gainbegiratu.
- Mantenuaz arduratu.

Zentru bakoitzak, Eskola Kontseiluaz hornituta legokeelarik, beste Eskoletako Kontseiluekin izango lituzke harremanak munizipio mailan eta eskualde Kontseiluan hurrenik hurren, eta hemendik sortuko litzateke herrialde mailan lan egingo lukeen Herrialde Kontseilua.

Lau herrialdeetako Eskola Kontseiluek osotuko lukete Kontseilu Nazionala Euskal Herriko heziketa sistemaren arduraduna litzatekeena. Halaz ere, ez da ahaztu behar, zentru bakoitza dela heziketa zereginaren egile zuzena eta, beraz, gestio honen hezurmamimetzea eratu behar duela.

3.- ESKOLA EUSKALDUNA

Menperaturik eta egoera diglosikoa dirauen Euskararen berpizkundea inoiz ezin daiteke lor gaurko egoera ontzat emanaz. Izan ere, bere garaian, orain 20 urte, Ikastolak sortu zirenean, abiapuntu hau onartu bagenduan, gaur hiltzorian dagoen euskararen arrasto askorik ez genduke edukiko.

Denok dakigu egoera zein den: Euskal Herria erdalduntzen ari zaigula. Eta beraz, ezin uka, haurrak bizi duten giroa, gehienetan behintzat, erdalduna dela. Baina jakina, egoera ber-berari modu guztiz ezberdinez erantzun dezaiokegu:

Haurrarekiko "errespetoaz" baliaturik txiki-txikitatik sufritzen dugun hizkuntz zapalketa ontzat emanaz, eta beraz, indartuaz; ala, haurraren hizkuntzatik abiatuz bere EUSKALDUNTZEA helburutzat hartzea.

Ikastolek, sortu zirenean, beraien **HELBURUA** oso garbi zedukaten: Haurrak euskaldunduaz, Euskalherria euskalduntzea. Eta dudarik gabe, planteaketa hau gaurko ere guztiz baliogarri bilakatzeko zaigu. Beraz, Eskola **EUSKALDUNA** eskatzen dugunean, ondorengoa adierazi nahi dugu:



1.- Irakaskuntza oso Euskara hutsean ematea erabakirik duten ikastola-eskolak publikoki onartuak eta rekonozituak izan daitezela. Eta ondorenez, kontrako giroan Euskeraz irakasteak esigitzen dizkigun baldintza pedagogikoak betetzea; hala nola: haurren kopurua, euskararen irakaskuntzari buruz ikerkuntza, materiale egoia etab.

2.- Eskola elebidunak izaten jarrai nahi duten ikastola, segi dezatela beraietan. Oraingo eskola erdaldunak berriz, eskola elebidunetan biurtuaz. Dena den, hau dena lehen urratsak izanen lirateke, zeren eta egoera elebidun hau ez da erdalduntze euskalduntzearen bidean pausu bat besterik. Elebitasuna ez da inoiz helburu bat, erdibide eta egoera guztiz aldakorra baizik.

NORMATIBA - KONBENIOA ETA ESKOLA EUSKALDUNA

1.- Konbenioaren 13. artk. eta bai ondoren argituratuko Eranskinetan (plangintza pedagogikoari buruz ari denean) argi aski agertzen zaigu beraien helburua "Elebitasuna egokiago aurrera eramatea" dela. Inoiz ez digute adierazten, hitzez bederen, haurra Euskalduntzearen helburua.

4.- IRAKASLEGOARENTZAT ALTERNATIBA:

Ikastolek bizi duten transizio egoeran eta berauen geroak Eskola Euskaldun Publikoarentzat duen garrantziak, alor honetan geure ikusmiratik postura hartzera behartzen gaitu, langileen interesak defendatuz, noski. Langileek zein egoeratan behar luketen azaltzean, eskubiaren jarrerekin bat ez garela etorriko ba dakigu jakin, ina heziketari buruz dugun pentsaera orokorrarekin koherente liratekeen jokamoldeak mantentzea posibletu liezaguken barne debatea hasteko asmoz.

a.- Kontratu Publikoa, Irakaskuntza serbitzu publikoa.

Gurasoak enpresari bihurtzen dituen oraingo egoeraren aurrez aurre, guztionek heziketa interesak klarifikatzeko enpresari ere ba diren gurasoei dakartzkien oztopoekin (kontrol ideologikoa, gestio demokratikoa . . .), kontratu publikoaren alde gaude, heziketa komunitate osotzen duten partaideen arteko harreman demokratikoak garantizatuko lituzkeen kontratuaren alde, hain zuzen ere.

b.- Lan Kontratuaren defentsa

"Funtzionari" izateak, printzipioz, Estatuaren interesen serbitzari leiala izatea esan nahi du, interesok, ez beti, —edo ia behin ere ez— herri interesekin bat datozerik. Irakaskuntzako langileok, eskola komunitatearen barnean, langile publikotzat dugu geure burua. Funtzionari izateak, heziketa sistemaren autonomia eta aniztasunaren posibilitateak mugatzen ditu, irakaskuntza estatalizatua bilakatzen duelarik.

Funtzionari izateak, sistema estatutarioa inplikatzan du, aldaketa posibilitaterik gabe eta arauzko aginduen menean, ekintza sindikalerako posibilitateak ahal denik gehien murrizturik: negoziaketa kolektiboa, greba eskubidea . . .


Azkenez, Konstituzioak eta Gernikako Estatuak eskaintzen duten maniobra tartea funtzionarigo autonomoaren existentzia bera ezindu egiten du. Hau guztiau oso argi dago LOAPAN eta, beraz, funtzionari izatea Estatuko funtzionari taldera igarotea litzateke, ente autonomoaren egitekoa kontrol administratiboburokratikorako soilik mugatuta legokeelarik.

c.- Sarbide Formak.

"OPOSAKETAREN" bidez lanpostu batetara iristea, funtzionarigaiek ia bizi direinorako izango duten destinoa, grazioski, emateko sistemak duen boterea baino ez da, Eskola Publiko Euskaldunak gure ustez, dituen premiekin inolaz ere bat ez datozen irizpideen arabera.

Gure aburuz, sarbide forma, konkurso publikoaren bidez izan behar du, Eskola Kontseilu Nazionalak demokratikoki burututako baremoz baliaturik, partaide guztien iritzia entzun ahalko direlarik, beharizanen arabera berrikusgarri bezala egina eta kide guztiei errekurtso bidea errekonozituko diena.

Debaterako baremo orientatibo gisa, ondorengo hau zirriborrotzen dugu:



- 1.- TITULAZIOAK (Ezinbestekoak) puntuazio gabeak
 ESKOLAURREA – Maisutza titulua edo diplomada.
 O.H.O. – Maisutza titulua – lizentziatuak, barruan daudenentzat
 BUP - COU – Lizentziatura
 F.P. ? – Inginadore eta Peritoak
 – Euskarazko titulua: D edo Hizkuntza eskolako

2.- PRESTAKETA BEREZIA

Espezialitatea (tituluari dagokiona)	10
Beste titulu batzu (espezialitateaz)	5

Esperientzia arlo honetan (urteak)

Zertifikatuz:

3. urtetik gora	10
2. urte	5
1. urte	3

3.- ESPERIENTZIA OROKORREAN (urteak)

1 – 2 urte	2
3 – 5 urte	4
Setik gora	6

4.- IKASTAROAK

Guttien	0,5
Gehien	2

5.- HURBILTASUNA

(DESENATERAKO)

6.- LANGABEZIA

?

a.- Lekualdatzeak eta pertsonalaren hautapena.

Lekualdatzea (destinoa aldatzeko langile bakoitzaren desira) eta pertsonalaren hautapena (langile konkretu batzuek baliatzeko Zentru bakoitzaren desira) aipatzen, eskola errealtatetik urrikdutako burokraziakeri zentralistatik hasi eta era bihurrienez baliaturik zenbait sektorek mantendu nahi duten kontrol ideologikoraino iristen den tartean higitzen gara.

Bi faktoreok elkarlotzen jakitea garrantzizkoa da: destinoz aldatzeko langile bakoitzak duen eskubidea eta eskola komunitate bakoitzak ongien egokitzen

zaizkion langileek baliatzeko duen eskubidea hain zuzen, barne aniztasunarekin eta gestio demokratikoarekin topo egiten ez den heinean, noski.

Zentzu honetan, gure proposamena zera litzateke, Eskola Kontseilu Nazionalak lekualdatzeen baremoa sor zezala, lanean egindako urte kopuruak eta betetzeko zailak diren destinoek puntuazio osoaren 100etik 75a balioko luketelarik, gainontzeko 100etik 25a Zentruko Eskola Kontseiluaren irizpidearen esku utzirik, Eskola Kontseilu Nazionalak, alde zuzenetik, bereizgarri ezkotzat emandako irizpideen esku, noski.

e.- Lorturiko Eskubideak.

Ikastola zentru publiko izatera iristeak, egoera berrira aldatu beharko luketen guztientzat, lanean igarotako urteen errekonozimendua esan nahi du, ezinbestean.

Kontrataziorako baldintza minimoeta-


ra iristen ez direnentzat, egoera hau konpon lezakeen erreziklaia plangintzaren eraketa beregain hartu behar dute erakundeek.

Pertsonal ez irakaslea lan-eskubide guztien errekonozimenduz igaroko da egoera berrira.

ESKOLA PLURALISTA

– Aniztasun ideologikoan finkatua. Edozein pentsakera eta alderdi politiko batekoa izateagatik guraso, laguntzaile, irakasle-langile eta ikasleei ezelako mugarik jarriko ez diona. Alderdi politiko bati loturik egon ezin dena. Hitz batean, era aunitzeko pentsakerako partaideak onhartuko duen eskola.

– Pluralista izan arren, neutrala ez den eskola, zeren eta neutralkeria beti poderean dagoen klase sozialaren zerbitzuan baitdago. Beraz, haur eta gazteak zabaltasun eta zentzu kritikoan heziko dituen. Herri eta langile koizientzia piztu eta bizkortu duen eskola.



PEDAGOGI ASKATZAILE ETA ZIENTIFIKOAN FINKATUTAKO ESKOLA

PEDAGOGIARI BURUZKO ALTERNATIBA

Pedagogia moeta berri bat sortu nahi bada gure eskoletan, gizarte berri bat sortu beharra dago. Gure haurrak hezitzeko bide berri batek zer-ikusirik handia du gizartean sortu behar den bizitzeko-era eta harreman-era berri batekin.

Baina, eta jakin arren gure eskolek jasan behar dituzten sozio-ekonomiko, kultur eta egiturazko baldintzak, uste dugu oraintxetik pauso seri batzu eman daitezkeela Pedagogia moeta berri hori sortzen.

Bidea zabaldu eta nondik jo argitu nahiz, Herri Batasunak hau proposatzen du:

HAURRARENTZAKO ETA HAURRAREN PEDAGOGIA

Nagusien interes funtzioan eta hauei begira pentsaturiko eskolaren aurrean, nagusien eskemekin mailaturiko pedagogiaren aurreran,

HAU PROPOSATZEN DUGU:

- Haurreri begira, honen inguru, psikologia eta interesei begira pentsatu eta antolaturiko eskola, haurraren nortasuna sakon-sekonean errespetatuz.
- Ikaslearen nortasunaren ikuspegi dinamiko eta oso batetik hastea, non bateratu behar dira aktibitate, jakintza eta teknika guztiak, prozesu zabal eta orekatu batetan.
- Hezketa ez dago zuzendurik gure irudia modelatzeko haurra, baizik eta bideak eskaintzeko, zabaltzeko eta berak bere nortasuna oso dezan posibilitatzeko.
- Irakasle-ikasleen arteko harremanak pertsonalak, ez aginterizkoak, eta positiboak izan daitezela, haurraren eta gaztetxoaren espresio osoa posibilitatzeko.

ESKOLA AKTIBOA – PEDAGOGIA AKTIBOA

Bizitzatik eldendutako gaurko hezketaren aurrean; ikaslearen kezka, interesa eta mundutik urrutiraturikoa; irakasle "jakintsuaren" aurrean, ez zaio ikasleari beste biderik geratzen honen jorkabide eta konbidentzi bideak, goitik ipiniak, onartzerik ez bada. Ba, Pedagogia moeta honen aurrean,

HAU PROPOSATZEN DUGU

- Eskolaren martxoan haurren autojestioa, ahal den neurrian eta maximoki, indartzea, beraien adina eta gizarteak logikoki ezarriko dizkigun mugak kontutan harturik. Beren ekintzetan jektio aktiboa euki dezaten bide guztiak zabaldu behar dizkiegu.
- Espresio aske baten tokia izan behar du eskola ikaslearentzat, eta baita ere gizartearen maila guzietan parte hartzeko ikastoki bat.
- Ikasgelan lan egiteko materialik oinarritzkoena inguru hurbila izan behar du, beronek baldintzatzen eta sortzen baitu bakoitzaren esperientzia.
- Testuak erlazio zuzena behar dute euki ikaslearen esperientzia eta bizitzarekin, askotan gainera beronek izanen delarik testu hauek egileak.



IKERKUNTZAN FINKATURIKO PEDAGOGIA

Memorizazioan oinarrituriko irakaskuntzaren aurrean;

“neuro” itxura duen eskolaren aurrean (baina goikoen interesak serbituz, gizartean dagoen klase-burrukaren arrazoi eta oinarriak estaliz),

HAU PROPOSATZEN DUGU:

- Inguru sozial eta historiaren ezagupena, egintza eta ikerpenen bidez planteiatu behar dela.
- Errealitatearen azterketa kritikoa indartu, errealitate honen ulermena gehitzea eta beraz aldatzeko bide berriak sortzea posibilitatuz.
- Matematika ez da ulertu behar operazio eta formula teoriko multzo bat bezala, baizik eta ikasleari ulermen eta espresio bide bat emango dion arlo bat bezala.
- Haurra, errealitatea ulertuz, bere hizkuntza aberats eta berezkoan espresatzeko gai izan behar da, eta gainera espresatzeko era guztiak erabiliiz (ritmoa, musika, dramatizazioa, . . .)

PEDAGOGIA KREATZAILEA

Bere lanaren bidez izadia menederatzen duen eran, gizonak bere burua osatzen du. Horrelaxe haurrak bere nortasuna osatzen du heldutasun-prozesuaren une bakoitzetan. Eskoia-aldia, “pasatu” egin behar den denbora bat dela, ezer aprobetxatu gabe, uste dutenen aurrean,

HAU PROPOSATZEN DUGU:

- Gure eskolak, ekintza kreatzaileen lantoki bihurtu daitezela.
- Eskolako lana, lan pertsonal eta baliagarri bihurtzean ikaslearentzat, ez dadila izan erreprezi-boa eta kontzienteki onar dezala.
- Bai indibidualki bai taldeka, beren lanen arduradun izaten eta lan hori aurreratu eramateko, ahal den egokien, bideak ipintzen ikasteko leku bat izan dadila eskola, gogo onez onartuz guztion artean erabakitako bakarkako eta taldeko kontrolak.

BIZITZAREKIN LOTURIKO PEDAGOGIA

Gaur egun, eskola "getto" gehiagi dugu. Hauetan gizarte girotik urrun bizi dira eta dituzten programaketak ez dute erlaziorik, ez haurrak egunero bizi duenarekin, ez, eskola-aldia amaitzen duenean, aurkituko duen bizitzarekin. Honen aurrean,

HAU PROPOSATZEN DUGU:

- Programaketak, hauen interesa eta kezketan oinarrituak izan behar dira eta beraien galderei etengabeko erantzuna emango dietena.
- Emango zaion irakaskuntza, geure herriko gehiengoaren (euskal langileriarona) kezka, interesa eta beharizanei erantzungo diena izan dadila.
- Gizarte arloko, Natur arloko, Plastikako, . . . programaketak Euskal Herriko sozioekonomiko eta kultur ingurua kontutan harturik egingo dira; irakasle, guraso eta ikasleak kultur-ekintzen eragile direlarik.
- Kultur herritarraren aintzindari izanaz, hauzategi edo herrira zabalik egon dadila eskola.



IRAKASKUNTZA EUSKARAZ

Oraingo eskolen, gaztelania da Euskal Herriko hizkuntza ofiziala eta bakarra. Honen aurrean, HAU PROPOSATZEN DUGU:

- Arlo oinarritzotzat hartuak izan daitezela euskara eta euskal kultura Euskal Herriko eskola guztietan eta irakaskuntzaren maila guztietan.
- Lurralde euskaldunetan, orainxetik euskaraz eman dezatela irakaskuntza. Eta baita ere posibilitate hau eskaini gaztelaturiko lurraldetan bizi diren pertsona eta talde guztiei.
- Gaztelaturiko lurraldetako pertsona eta taldeak posibilitate guztiak eski behar dituzte irakaskuntza osoa euskaraz egiteko, horretarako behar diren eskola guztiak sortuz ados eta eskola baten barruan kurso paraleloak ipiniaz.



Un aspecto de la asamblea de LAB por una escuela nacional vasca.

M
solio
Mar

La dirección zana y Cía S/ negado con rot sión de una ti dedicándose ac «desprestigiar, dora sino como nuncia un grup la empresa, C EMK, HB, LK jeres de Gernik la despedida es y políticos con lunes una conc de la tarde, dela nika. Como se realizado por la julio alegando b Ante este com sarial, los sindic ridos indican en la clase trabaja brada y harta « midación y que s den comprarnos si fuéramos un- vos», agregando obrera no se paga Dirigiéndose a

Constituido el sector de enseñanza de LAB

Estud
social

Bilbo
El sindicato abertzale LAB celebró ayer la asamblea fundacional de LAB-Irakaskuntza, el sector de enseñanza de esta formación sindical. En la asamblea participaron delegados de los cuatro herrialdes de Euskadi Sur y en la misma se desarrollaron y debatieron diversos temas relacionados con la nueva organización.

Así, en primer lugar intervino Joselu Cereceda en nombre del secretariado nacional de LAB, quien expuso las razones que han motivado el nacimiento de LAB-Irakaskuntza, que centró en la necesidad de potenciar el aspecto cultural desde la perspectiva del sindicalismo en tanto que pilar básico en el que se apoya el futuro del pueblo.

Según Cereceda, en un momento como éste, que definió de 'coyuntura histórica', LAB debía potenciar este aspecto desde el punto de vista socio-político en que se enmarca la lucha del sindicato.

En segundo lugar intervino Iñaki Murua, quien repasó el material de trabajo preparado inicialmente y las ponencias a debate para la Asamblea Fundacional. Murua se refirió también a la problemática de los trabajadores del sector, la necesidad de una convergencia de las ikastolas y las escuelas transferidas en la escuela pública vasca y la imperiosa necesidad de un cambio de marco jurídico-político para la consecución de lo anterior. Murua señaló también la necesidad de la negociación política como única vía válida para dar una salida real a los problemas de Euskal Herria, entre los cuales se encuentra también la enseñanza.

Joseba Arín, miembro del comité provincial de Bizkaia se refirió a la problemática específica de las elecciones sindicales y del papel a desarrollar por los delegados de LAB. Habló también de la necesidad de participar en estas elecciones y de la actividad que en este sentido han

desarrollado.

Finalmente intervino Andoni Izagirre, miembro del Comité Nacional de LAB-Irakaskuntza para explicar las labores y obligaciones que contrae este órgano, y que se centran fundamentalmente en la dinamización de los comités de herrialde, así como las tareas inmediatas a acometer, tales como la lucha contra el decreto del 4 de julio sobre el modelo B, la lucha por la escuela pública vasca y la participación activa en el proceso del Movimiento de Liberación Nacional Vasco, así como la elaboración de plataformas reivindicativas para las próximas elecciones sindicales y las consiguientes luchas por los convenios.

El acto finalizó con la breve intervención de Karmel Etxebarria en nombre de la Mesa Nacional de Herri Batasuna, quien dirigió unas breves palabras de salutación y esperanza a los congregados.

José Vicente Ir
ciado en Filosofía
cado en el último
vista «Príncipe de
el Departamento
Cultura del Gobie
estudio de 46
«Aproximación a
social de Navarra,

Las principales
estudio han sido l
dos o de instituc
legal y clandestin
oficial de la Organ
las conversaciones
muchos de los pro
conflictos sociales d

Los datos aporta
señalan que en los
Nafarroa fue la cua
Estado en cuanto a
refiere. En el conj
estudiado se produ
vincia 474 conflic
lugar a 7.037.773 ho

Dos de los hitos
fueron la huelga ge
de los trabajadores d
de junio de 1973 y la

BIZKAIKO
FORU
ALDUNDIA



DIPUTACION
FORAL
DE VIZCAYA